

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko martxoaren 27tik apirilaren 2rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

Día 30/03/2021

- **Lan-hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko martxoaren 17koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Banketxeen sektoreko XXIV. hitzarmen kolektiboa. [5003 xedapena - 62 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/03/29

- **Euskadiko Administrazioak. - EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** - Hutsen zuzenketa martxoaren 10eko ALHAOn (28. zk.) argitaratutako 789 iragarkian, Arabako hezkuntza aisialdiko eta gizarte eta kultura animazioko enpresen sektoreko hitzarmen kolektiboa argitaratzeari buruzkoan. Zuzendua: 2021/789. [1042 xedapena - 1 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/03/27

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Substantzia kimikoak.** - JUS/288/2021 Agindua, martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez arautzen den Toxikologia eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalari substantzia eta nahaste kimikoak jakinarazteko prozedura. [4797 xedapena - 5 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Animalien osasuna.** - APA/289/2021 Agindua, martxoaren 22koa, zeinaren bidez ezartzen den animalien osasuneko zerbitzuek zein sortari egin behar dioten albaitaritza-kontrola mugetan. [4799 xedapena - 36 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. - Osasun-neurriak.** - SND/292/2021 Agindua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez osasun-kontrolako neurriak ezartzen diren Frantziatik Espainiara lehorretik iristen diren pertsonentzat. [4802 xedapena - 4 or.](#)

2021/03/29

- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/294/2021 Agindua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez luzatzen den INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioako beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko ordena publiko eta osasun publikoko arrazoiengatik, eta zeinaren bidez

baliogabetzen den INT/1236/2020 Agindua, abenduaren 22koa, zeinak irizpideak ezartzen dituen aldi batez murrizteko Schengen eremura lehorretik sartzeko bideak, Gibraltarreko lurraldeko pertsonen kontrolerako gunearen bitartez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko ordena publiko eta osasun publikoko arrazoiengatik. [4849 xedapena - 2 or.](#)

2021/03/30

- **Premiazko neurriak.** - 2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriei buruzkoa. [4908 xedapena - 29 or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK.** - Sozietateen gaineko Zerga eta Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zerga. – Ebazpena, 2021eko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den martxoaren 9ko 4/2021 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze-akordioa argitaratzea. Errege Lege-dekretu horren bidez aldatu egiten dira 27/2014 Legea, azaroaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergarena, eta Egoiliar ez direnen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testuategina, zeina martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen, asimetria hibridoek den bezainbatean. [4909 xedapena - 1 or.](#)
- **Premiazko neurriak.** – Ebazpena, 2021eko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze-akordioa, COVID-19aren pandemiari aurre eginez enpresen kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoa. [4910 xedapena - 1 or.](#)
- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. – Zerbitzu-kartak.** – Ebazpena, 2021eko martxoaren 22koa, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez onesten den Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zerbitzu-karta eguneratzea. [5001 xedapena - 1 or.](#)

2021/03/31

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolaketa.** – 236/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den 1421/2000 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kanpo Politikako Kontseilua sortzeari buruzkoa. [5028 xedapena - 2 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Mahats-ekoizpena.** - 201/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den 1338/2018 Errege Dekretua, urriaren 29koa, mahasgintzako produkzioaren ahalmena arautzen duena. [5030 xedapena - 19 or.](#)
- **Sektore publikoa. Bitarteko elektronikoak.** - 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten den Sektore publikoak bitarteko elektronikoaren bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua. [5032 xedapena - 59 págs.](#)
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. - Hidrokarburoak.** - 205/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den 1085/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, bioerregaiak sustatzeko, eta bioerregaien salmenta- eta kontsumo-helburuak arautzen diren 2021. eta 2022. urteetarako. [5034 xedapena - 8 or.](#)

- TED/302/2021 Agindua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den ITC/2877/2008 Agindua, urriaren 9koa, zeinak mekanismo bat ezartzen duen garraiorako bioerregaien eta beste erregai berriztagarri batzuen erabilera sustatzeko, denbora-baldintzak atzeratu eta 2020ko egiaztatze-ekitaldiari ezar dakizkiokeen zenbait betebeharrak bertan behera uzteko. [5035 xedapena - 4 or.](#)

2021/04/01

- **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. - Justizia Auzitegi Nagusiak.** - Akordioa, 2021eko otsailaren 18koa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorrarena, zeinaren bidez argitaratzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salaren akordioa, Administrazioarekiko Auzien Salaren 2021. urterako banaketa-arauei buruzkoa. [5199 xedapena - 4 or.](#)

2021/04/02

- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA AGENDA URBANOAREN MINISTERIOA. - Merkantzia arriskutsuen aire bidezko garraioa.** - Ebazpena, 2021eko martxoaren 24koa, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen diren merkantzia arriskutsuen aire bidezko garraioa modu seguruan egiteko Jarraibide Teknikoen Eranskinak (OACI 9284/AN/905 Dokumentua), 2021-2022 edizioa. [5207 xedapena - 3 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. - Osasun-neurriak.** - SND/312/2021 Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez bigarren aldiz luzatzen den SND/181/2021 Agindua, martxoaren 2koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak dirauen bitartean arrisku-herrialdeetatik datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. [5208 xedapena - 3 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/03/27

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 16/2021 DEKRETUA, martxoaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 13/2021 Dekretua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratzen diren, alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. [1834 xedapena - 5 or.](#)

2021/03/31

- **XEDAPEN OROKORRAK. - OSASUN SAILA.** - 116/2021 DEKRETUA, martxoaren 23koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa. [1883 xedapena - 25 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/03/29

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 9/2021 Foru Araua, martxoaren 17koa, 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa, baliozkotzeko dena, onesteko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea. [1054 xedapena - 1 or.](#)

2021/03/31

- **Arabako Foru Aldundia. - ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2021 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 23koa. Onespina ematea COVID-19arekin lotutako ezohiko neurri osagarrirei. [1091 xedapena - 5 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/03/31

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 2021eko martiaren 17ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau berresten dauena: otsailaren 23ko 3/2021 Foru Dekretu Arauemailea, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Aseguru-Primen gaineko Zergan eta Ekonomi Ihardueren gaineko Zergako tarifetan neurri gehigarriak aplikatzeari buruzkoa. [L246 xedapena - 1 or.](#)
- **Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.** - Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 2575/2021 FORU AGINDUA, martxoaren 22koa, 2022ko zerga Itunduetango Bizkaia Lurralde Historikoko Udalerrien partaidetza zehazterako beharrezko informazioa zuzkitzeko toki Erakundeek erabili behar duten eredia onartuz. [L240 xedapena - 5 or.](#)
- **Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 20/2021 FORU DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak arautzen dituen. [L247 xedapena - 4 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/03/29

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen. Akatsen zuzenketa. [58 xedapena - 2 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 153/2021 Foru Agindua, martxoaren 23koa, 2020ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen. [58 xedapena - 126 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO